

Gorka Urbizu

MUSIKARIA

Nomadak

Hogeita lau hilabete beteko dira sarri gure azken birari ekin genionetik. Bi urtetxo, azkar esaten da, bai eta azkar igaro ere. Gogoan dut oraindik grabaketa molde bitxia erabili genuela: Marino Goñiren etxeko ganbaran hartu genuen soinua, Nafarroako Erason, gero nahasketak non eta Kansasen burutzeko, Eudora izeneko herrirka galdu hartan.

Nahasketak bukatuta eta diskoa New Yorken masterizatu bitartean, taldekideok Erta-merikarantz jo genuen, birari hasiera eman asmoz. Egun batzuk beranduago, Ed Rose ekoizleak kantuak banan-banan bidali zizkigun, posta elektronikoz. Gu etxola batean geunden orduan, Ozeano Barea parean geneukala, Managuan jo berri eta hango berotik ihesi. Portatilean jaso genituen abestiak eta, paisaia paregabe hori lekuko, estreinakoz entzun genituen gerora *Jaió. Musika. Hil* osatuko zuten abestiak. Diskoa esku artean izango genuen handik gutxira.

Egileari, baina, ez zaio nahikoa kantuak ondu, grabatu eta kalera-tzearekin. Ez. Egileari gero beste hainbat gauza eskatuko zaizkio. Besteak beste, bere musika esplika dezan eskatuko dio kazetari petralak, hori posible balitz bezala eskatu gainera. Egilea urduri jarriko da orduan. Erantzuna prestatu gabe badarama, trabatu egingo da ziurrenik;



aldiz, aurretik azalpen sakonak prestatuak bazituen, pedante xamar ikusiko du bere burua, topikoak askatuko ditu grabagailu zitalaren aurrean: “Disko helduagoa da” –disko jaioberri bat *heldua* izan al daiteke?–, “soinu trinkoagoa lortu dugu”, eta abar eta abar. Honi guztiari promozioa deitzen zaio.

Guri ere tokatu zitzaigun honetatik apur bat egitea, munduan zehar jotzen hasi aurretik. Orduan beste fase bat hasi zen, grabaketa milimetrikotik zuzenekoan bapatekotasu-

nera daraman hori. Polita izaten da abesti berri batek sortu eta grabatzen denetik egiten duen bidea ikustea: nola hazten diren batzuk beste batzuk burugogor jartzen diren bitartean; nola jendeak *bere* egiten dituen zuk esandakoak eta zirrara modukoa sentitzen ahal duzun, nahiz eta aldi berean *zure* bakarrik izateari uzten dioten hein batean...

Duela hogeita lau hilabete kantuak banan-banan jaso nituen portatil beretik ari natzaizue idazten. Parean ez dut Ozeano Barerik, baina horrek orain ez du inporta. Kantu horiexek entzuten ari naiz, egun 157 kontzertu zaharrago direnak, neu bezalaxe. Eta iruditzen zait hauetako batzuek behintzat bide egiten jarraitzen dutela oraindik ere. Ez da harritzekoa, izan ere nomada xamar jaio baitziren: Eraso, Kansas, New York, Managua... ■

«
Bere musika esplika dezan
eskatuko dio kazetari petralak,
hori posible balitz bezala
eskatu gainera. Egilea urduri
jarriko da orduan. Erantzuna
prestatu gabe badarama,
trabatu egingo da ziurrenik
»

TXANDAN

Sustrai Colina



Politikaz iritzia ostu nahi digutenei zer lan egiten duten galdetzen diegu, puntualak ote diren, ogia eroatera autoz iriteten diren, non bizi diren, zer opor klase dituzten gustuko. Hesean gabiltzala iruditzen bazaie haserretu egiten zaizkigu. Zertaz ari garen jabetzen badira mintu.

Ez dute ulertzen gure koadrilan geroz eta gutxiago hitz egiten dugula Politikaz. Ez dute ulertzen nahiago dugula Tourraz, garagaradoaren aparrak ala gorputz biluziaren estetikaz eztabaidatu. Ez dute ulertzen tximetaraino gau-

Gu primeran

dela egia eta gehiengo absolutuekin.

Apolitiko bihurtu garen galdetzen digutenei, ez daukagula elizaz ezkontzeko asmorik erantzuten diegu,

kontzertuko kartelak kolatzeko kontatzeko gurekin, liderak baino gehiago gustatzen zaizkigula gregarioak.

Mozkortuta geundela pentsatu izan dute, seko erotu garena. Baliteke denek arrazoi izatea. Baina gu, Reala ez bezala, primeran bizi garena esanda bidaltzen ditugunean, amorratuta joaten dira. Realarenagatik sutzen dira batzuk, eurak baino hobeto bizi garelako besteak.

Jakina, Politikaz hitz egin nahi zuten. ■